

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

- **Zein da zure bezeroa?**



Gure bezeroaren atal bat gurasoak eta ikastetxea dira (Gurasoak haien semea-alabak direlako eta lagundu egin nahi dietelako eta emaitza onak lortzea nahi dutela, eta ikastetxearen kasuan, ikasleek hobetzea nahi dutelako), baina gauzarik garrantzitsuena, argi dagoenez, ikasleak dira.

Ikasleen eginkizuna ikastea da, eta haien lana errazteko, antolatzen laguntzeko, gure erloju antolatzailea dago, Satch.

- **Zein dira bezero horien ezaugarriak?**

Nahiz eta pertsona gazteak bezero nagusiak izan, edonork erabili dezake gure erlojua, zeren azken finean guztiok antolatzeko beharra daukagulako. Baina ideia nagusia nerabeei eta ikasleei laguntzea da. Ikasleen ezaugarriak ikasteko beharra daukatela da, eta normalean eskolan hamar ikasgai edo gehiago izaten dituztela. Hainbeste ikasgai ikasteko eta etxeko lanak egiteko behintzat, antolaketa ona ezinbestekoa da, gauzak ondo egin nahi badituzte. Nerabezaroan, burua gauza askotan eduki ohi da, eta zaila da denez gogoratzea, horregatik da Satch proposamen onuragarria guztientzat. Gainera, prezio ekonomiko bat dauka, bai ikasle berak erosten badu, bai haien gurasoak erosten badiete. Dena abantailak dira, eta gainera estetikoki polita da, kolore guztietan, estetika gazteek asko begiratzen duten atala dela kontuan hartuz.